

# Daiteke



UXUE APAOLAZA LARREA

**G**ertatzen diren gauzak gerta daitezkeenak dira. Horrela esanda ergelkeria bat dirudi, baina, orduan, hori baldin badakigu, ergelak guk ematen dugu, ez? Alegia, gauza batzuek hain dirudite auresangarriak gertatu ondoren (eta aurretik: Banku Zentralak tipoak igoko dituela noizbait, adibidez). Hala ere, denok gara errugabeak gertatu arte, eta, gero, tira, gertatutakoan erraza da ondorioak ateratzea, baina, esaten dugu, lehenago ezin zen jakin, lehenago, beti gerta baitzitekeen beste zerbait. Adibidez, eduki dezakezu gizon ez betetako elkarte batean emakumezko garbitzaile arrazializatu bat gaueko ordu txikitan lanean, inolako protokolo edo babesik gabe, eta pentsatu garbitzaileak ez duela erasorik jasango, eta bat salatu arte itxoin, ziur asko, azken hori ez baita inoiz gertatuko, izan ere, gerta daitezkeen gauzak baino ez dira gertatzen. Beraz, ez zuen zertan gertatu.

Eta behin gertatzen direnean, adibidez, genozidio bat, harritu egiten gara zein heinetan geunden prestatuta bat jasateko. Pantailan. “Nola da posible?”. Zergatik ez? Ez da bakarrik posible, da eztabaidagai, da ikuspuntuaren arabera, da, are, dantza egiteko modukoa, musika jaialdietan...

Gertatzen diren gauzak ez baitira soilik gerta daitezkeenak, baitira gerta daitezzen uzten ditugunak, beldurra besteen hezurretatik geuretara igaro ez dadin. Beldurra ez da txarra berez. Beldurra oso txarra da botereak kudeatzen digunean. Beldurra atzeratzen edo aurreratzen digute nahi duten moduan. Beldurra paranoikoa izan daiteke, baina badakizue, paranoiko izateak ez du esan nahi arrazoi ez duzunik. Ia beti. ●



## Kartzela

Preso bat hil da Zaballako espetxean. Eusko Jaurlaritzak espetxeen transferentzia bere gain hartu zuenetik, duela bi urte eskas, laugarren heriotza izan da euskal kartzeletan, hirugarrena Zaballako espetxean. Hildakoa bigarren mailako erregimenean zegoen.

## Eraso matxista

Altsasuko kirol elkarteak salatu du emakumeen taldeak sufritutako eraso: entrenamendu amaieran, “persona bat edo gehiago” argazkiak edo bideoak egiten saiatu zen aldagelako leihotik; gero ihes egin zuten. Foruzaingoaren esku utzi dute salaketa.

## Heriotza

Gorka Setien Berakoetxea poemagile hernaniarra hil zen otsailaren 4tik 5erako gauean. Bost liburu idatzi zituen eta irrati libreteko ahotsa izan zen. 2019an autoedizioan argitaratu zuen bere poema liburu berriena, *Naufraگوen altzoa*.